

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y
EMPLEOCULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO
AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN
LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak Iruñeko Udalari kontsulta egin dio Nafarroako Lanbide Heziketako campus publikoa Lezkairun jartzeko aukeraren inguruan

Lursailak 36.000 m2 baino gehiagoko azalera du eta Gobernuari laga zitzea Mediku Zentro Teknologikoa eraikitzeko

Lunes, 10 de septiembre de 2012

Nafarroako Gobernuak Iruñeko Udalari kontsulta egitea erabaki du [Arrosadia-Lezkairu 5. industrialdeko 2526 lursailean Nafarroako Lanbide Heziketako campus publikoa jartzeko](#) aukeraren inguruan.

Kontsulta hori egitea gaur goizean erabaki da Iruñeko alkate Enrique Maya-k eta Hezkuntzako kontseilari José Iribas-ek eta Sustapeneko

kontseilari Luis Zarraluqui-k elkarrekin izandako bilkuran. Bilkura horretan Nafarroako Lanbide Heziketako campus publikorako izan daitezkeen kokalekuak aztertu dira, hasiera batean Etxabakoitz-eko lehengo San José Zentroan aurreikusita zegoena, hezkuntzako azpiegitura horren kokalekuari buruz ahalik eta adostasun handiena bilatzeko xedearrekin.

Egungo Donapea LHI eta Sanitaria BHI barnean hartzen dituen Lanbide Heziketako campus berria har dezakeen lursaila Iruñeko Udalaren Tokiko Gobernu Batzordeak doan laga zion 2009ko azaroaren 3an Nafarroako Mediku Zentro Teknologikoa eraikitzeko. Udal Plangintzan lursail horretarako aurreikusitako lurzorua erabilera irakaskuntza-kultur ekipamendu publikoarena denez, egokia da LHko campus berria jartzeko; beraz, Hitzarmen horren lagapenaren xedean aldaketa bat bakarrik egitea eskatuko zen.

36.095 m2-ko azalera du lursailak, eta eraikitzeko sestra gaineko 64.971 m2-ko sabai-azalerako aukerak eskaintzen ditu eta 21.657 m2-koa sestra azpitik, hau da, etorkizunean zabaltzeko aukerak eskaintzen ditu. Gainera, hiri-sarearen barnean dago eta Nafarroako Unibertsitate Publikoaren inguruan kokatzen da hark eskaintzen duen sinergia-aukerekin. Horri erantsi behar zaio, garraio publikoari egoki lotuta egongo dela eta oinez eta bizikletaz iristeko aukera eskaintzen duela.

Nafarroako Gobernuak San José zentroaren lursaila egokitatzat jotzen



Foru Gobernuko egoitza den Nafarroako jauregiko fatxada.

badu ere, kontsulta hori Iruñeko Udalarari igorri dio, eta bertan, gainera, udalak aurkez dezakeen beste aukerei ateak zabaltzen dizkie.

Proiektu horren helburua da, Nafarroako Osasun Eskola Tekniko Profesionalak (ESTNA) eta Donapea LHIak egun ematen dituen lerroak barneratzen dituen LHko campus publiko bat sustatzea, 1.550 bat ikasle hartuko dituena. Proiektu horren inbertsioaren zati bat Donapea LHIak egun hartzen duen lursaila Mediketa Aplikaturako fundazioari (FIMA) egindako salmentarekin ordainduko da. Fundazioak 200 milioi eurotik gora inbertitzea aurreikusten du Donapearen lursailean hiru ikerketa-zentro eraikiz.